

7. eta 8. GAIAK

1.- Zein da metoklopramidaren indikazioa? Nolako eragin desiragaitzak sortzen ditu?

Okak eta goragaleak dira, bai kausa gastrointestinala denean, bai zentrala denean (NSZ). Errefluxu gastro-esofagikoaren tratamendurako ere eraginkorra da.

Eragin desiragaitz garrantzitsuen sintoma extrapiramidalen agerpena da: muskulu kontraktura, mugimendu distonikoak eta batzuetan opistotonoak. Ohikoa da gazteetan erabiltzen denean. Sintoma hauen tratamendurako antikolinergikoak erabiltzen dira: Biperideno (Akineton®) bide parenteraletik. Beste eragin desiragaitz batzuk: logalea, larruzaleko erupzioak, ahoko edemak.

2.- Zein ez da antiemetikoa?

- a) Metoklopramida
- b) Klorpromazina
- c) Granisetron
- d) Loperamida

3.- Zein da antiazidoa?

- a) Sukralfatoa
- b) Almagatoa
- c) Klorpromazina
- d) Ranitidina

4.- Zeintzuk dira sukralfatoaren indikazioak?

Beste antiulzerosorekin batera, estresak sor dezakeen ultzeren profilaxirako eta esofagitis peptikorako.

5.- Ranitidinari buruz zein da gezurra:

- a) Antihistaminikoa da
- b) Aho bidez egunean behin hartu behar da
- c) Teofilinaren dosiak jaisteak eskatzen du
- d) Guztiak dira egia

6.- Zeintzuk dira *H.pylori*-k sortutako ultzeren tratamendurako gehien erabiltzen diren antibiotikoak?

[Amoxizilina, klaritromizina \(eta metronidazola\)](#)

7.- Zein da beherako kontrakoa?

- a) Metoklopramida
- [b\) Difenoxilatoa](#)
- c) Bisakodiloa
- d) Sulfasalazina

8.- Zeintzuk dira bitamina liposolugarrien xurgapena oztopatzen dituzten laxanteak?

[Laxante emolienteak: parafina eta glizerina](#)

9.- Zeintzuk dira Krohn gaixotasunean eta kolitis ultzerotsuan erabiltzen diren antiinflamatorioak?

[Sulfasalazina, mesalazina, kortikoideak](#)

10.- Zein da intsulina ultra-azkarra:

- a) NPH
- b) Erregularra
- c) Intsulina glargina
- [d\) Lispro](#)

11.- Zein da benabarnetik eman daitekeen intsulina?

- a) NPH
- [b\) Erregularra](#)
- c) Intsulina glargina
- d) Lispro

12.- Zeintzuk dira intsulinarenean xurgapenean eragina duten faktoreak?

[Intsulina mota, ziztadaren lekua \(sabelaldea, besoa, izterra, etab.\), sakontasuna, igurzketak, temperatura \(hodi-zabaltzea\), ariketa, lipodistrofia, etab](#)

13.- Zeintzuk dira hipogluzemiak eragiten dituen sintomak?

Izerdi hotza, zurbiltasuna, ahultasuna, gose sentrazioa, takikardia, dardara (hori guztia katekolaminen askapenaren ondorioz), ikuspen lausoa ere pairatu dezakete, portaera arraroa, foku neurologikoak, koma (hori guztia neuroglukopeniaren ondorioz).

14.- Zer da lipodistrofia eta nola ekidin daiteke?

Larrualpeko ehunaren atrofia edo hipertrofia datza eta gaixoak ziztada egiten duen lekuan agertu ohi da. Gehiago agertzen zen insulina animalietatik lortzen zenean. Prebenitzeko, leku ezberdinetan ziztatu behar da eta giza-intsulinak erabili behar dira.

15.- Zein da akarbosaren edo miglitolaren ekintza mekanikoa?

Heste-entzimen eragina (karbohidratoak txikitzen dituztenak) inhibitzen duena. Beraz, karbohidratoen digestioa luzatzen da eta ondorioz, glukosa astiroago pasatzen da odolera. Honek hipergluzemia postprandiala gutxitzen du.